

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko abenduaren 27a



Itxaro Bordaren abenturak Bardeetan

■ Durangoko azokan egon ondoren, joan den ostiralean Iruñean eta Tuteran aurkeztu zuen Itxaro Borda Oragarreko idazle ezagunak bere azken lana, *Amorezko pena baño*. *Bakean ützi arte* eta *Bizi nizano munduan* liburuetan bezala, Amaia Ezpeldoi detektibe ospetsuaren abentura

berri bat aurkeztu digu Itxaro Bordak azken honetan, Erriberan kokatua oraingoan. Eta ez du Amaia Ezpeldoi bazter uzteko asmorik Itxaro Bordak, baina poesia publikatzeko gogoia ere baduela aitortu digu Oragarrekoak berari egin elkarrizketan. ■

Zubian barna

BINGEN AMADOZ



Zeru itxurak zekarkiokena ez zen dagoeneko ez mehatxugarri ezta pittin bat beldurgarri ere Mikelentzat. Haren aitak ez zuen nekazaritza ogibidetzat izan eta beraz ez zen etxean lehorte eta ekaitzen izuan hazi. Bost axola zitzaion zeru urdina edo ta hodei beltzen azpian egon. Kezkak ez ziren basomutilen ondorengoengan goitik behera sortzen baizik eta soilik parean eta batipat goitik ziharduten gizakiengandik. Lainoz estalirik, lainogabea, eta batez ere ilargiaren sorgintasunean eroritako zeruan ordea, amets egiteko paradisu topatu zuen Mikelek.

Ñir-ñirka ari zitzaizkion izarrak maitaletzat harturik, gau goxo-lizunak eman zituen beraiekin. Elkargaineraturik, itzulipurdikan ibili ziren, goiak eta beheak nahastuz, mendiei arnas itoak

atereaz, erreka-zuloak luze-laburrean ferekatuz, leizeetako urxirripak zurrupatuz, haize-hegoaren hegaletan ahopeko hitz bustiak zabalduz.

Izarrak, eskuzabal eta eskerronekoak izaki, agian haren osagai berberrez eginik zeudelako, eta Mikel bezalaxe, erresuma horretan ilargiaren nagusitasuna kolokan jartzen sekulan ez zitzaielako bururatu, maitaleak izateaz gain lagun ere bilakatu ziren. Inor ez zen aurrerantzean gauza izan mutikoa eta izarren arteko batasuna zer mailatan gertatzen zen zehazteko.

Izarrak mundu honetakoak egin ziren Mikelez maitemindurik eta Mikel haien artera aldatu zen arnasa berriengandik hartzen ikasi zuelako. Ez bakarrik arnasa. Batek eman zion sua,

besteak ura. Ogia luzatu zioten egunero eta bizitzeko adorea orduka jaso zuen. Sendagile izan zituen gorputzarentzat eta sikiatra partikularrak behar larriengan.

Dimentsio berri batean, ametsak noraino iristen diren jakiterik ez dagoen horretan, Mikel galdu egin da Eguberri-aurreko egunetan. Batzuek Donostiako parte zaharrean ikusi dutela diote, besteek Etxarriko gaztetxean zegoela dantzan... Ba omen da Iruñeko Kaldererian eta Durangoko azokan, baita Beasain eta Madrilko karriketan topatu duenik ere.

Halere, nik badaikit, jakin ere, non eta norekin, baita zer galaxian dagoen bainan ez dut gaur, haren ezkutalekua, denen agerian emateko baimenik jasoso. X

Galduta

KONTZERTUAK

Zangoza: San Salvador elizan Benjamin Britten konpositorearen *Ceremony of Carol's* lana taularatuko dute gaur, ostirala, 21:00etan. Lan honetan parte hartuko dute Nora abesbatzak eta bakarlari gisa Ana Montoyak eta Cristina Sanchez arpa joleak.

ERAKUSKETAK

Burlata: Antzinako argazkien erakusketa ikusgai izanen da urtarrilaren seira arte Kultur Etxean. Astelehenetik larunbatera arte 19:00etatik 21:00etara izanen da zabalik eta igandeetan 12:00etatik 14:00- etara.

Bera: Edergailu erakusketa igandera arte dago ikusgai Kultur Etxean, eta hondarreko hiru egun hauek izango dira, beraz, Azkain, Sara eta Bera herrien artean antolatu den Atxuratik Larrunerat kultur egitarauaren azken ekitaldia ikusteko. Margoak eta eskulturak dira erakusketa honen funtsa. Honekin batera, esan beharra dago gaur egingo dela Azkaingo Bil Tokin Euskal Herriko mendiei eta ekonomiar buruzko mintzaldia, Eñaut Etxamendi ekonomia irakaslearekin eta Ttale Ourte lurrik gabeko artzainarekin. Arratseko bederatzietan izanen da.

Iruña: Alberto Laveriaren margoak Pintzel galerian (Abejeras, 6) dira abenduaren 31ra arte, goizetan 10:30etatik 13:30etara, eta arratsaldeetan 16:30etatik 20:00etara. Larunbat arratsaldeetan eta jaiegunetan aretoa itxita egoten da.

ANTZERKIA

Gares: GUS Txotxongilo taldeak *Marrubien printzesa* lana taularatuko du gaur, ostirala, bertako eskolan, Gabonetarako Udalak antolatu duen egitarauaren barruan. 17:00etan izango da emankizuna, eta ondoren merienda izango da haur guztientzat.

IKASTAROAK

Sakana: Bailarako AEK-k abenduaren 31ra arte luzatu du euskaltegiaren izena emateko epea. AEK-k urrats guztiak eskainiko ditu, ordutegi ezberdinetan, eta horiez gain EGA gainditzeko ikastaroa eta euskaldunzaharrentzako alfabetatze ikastaroa izanen da. Informazio gehiago jaso nahi izanez gero deitu 46 82 58 telefonora.

BESTELAKOAK

Iruña: Ipuin kontalariak izango dira egun hauetan Navarrierako Kultur Zentroan, Nafarroako Antzerki Eskolak eta Udalak lortu duten akordioaren barruan. Gaur Hans Christian Andersen *Urretxindorra* entzun ahal izango da, eta bihar Saturnino Callejaren *Airean arrapaladan* izeneko ipuina kontatuko dute. Igandean *Hansel eta Gretel* izango da aukeraturakoa. Emanaldi guztiak 18:00etan hasiko dira eta sarrera librekoa izango da.

nafar kronika

Patxi Larrion


Abeslariak

Alli jaunari kasu eginez gero basatxori-txoak mokoluzea da. Aurrekoan, moko fina ere badela erakutsi zuen. Kale Nagusikoaren egokieran oso politikari gutxi gogoratzen ditut. Bere alderdi ohian bazen gitarraz lagundurik klabe-linak partitzeko beti prest zegoena. Bestaldetik, duela bi urte eskas *joteros* SA izeneko taldeak zeresan handia eman zuen. Egun, talde horretako partaidea bakarlari lanetan dabil; alta, kantari izan zituen laguntzaileak ez ditu oso urrun. Gogoratu beharrekoa da txirula goxoki bezain fermuki jotzen duena ere. Adierazpenik egin ez duen alderdian, kantatzeko prest daudenak egon badira; azken hauek, barneko zein kanpoko eskenatokitian, askatasun osoz,

abesten idurikatzen ditut, zinez kilikagarria den ikuskizuna. Pulpitutik jaitzi ez direnek zail xamarra dute modernitateak ekarri dituen molde berriak berenagatzea, beti ere, hondamendia ez da bakar batzuen, monolaborantzak gizaki orotan baitu eragina.

Hator kantari ikuskizunaren ondoren, baten batek Alli plaza-gizona dela pentsatuko du, beste batzuk aldiz, usu janzen dituen praka grisek edozein kolorerekin konbinatzeko balio dutela azpimarratuko dute.

Aukeran, isil-misilean igaro den Xabierren pregoia nahiago. Bere hitzek izan duten oihartzun eskasak, ura bere bidera ekartzeko egin behar dugun alimalezko lana agerian uzten du.



asteko pertsonaiak



Xabier Diaz Esarte
Idazlea

■ Xabier Diaz Esarte idazle eta irakasle iruindarraren pregoiak eman zien hasiera aurten Gabon joan den astelehenean. Taconerako jaiotzaren aurrean, ohi denez. Arratsaldeko zazpi eta erdietan hasi zen ekitaldia. Ordurako, iruindar antz zegoen Taconerako jaiotzaren aurrean bilduta. Gabon kanten artean, euskaraz eta erdara tartekatuz irakurri zuen Xabier Diaz Esartek bere Eguberrietako mezua. Gaur egungo Gabonen kutsu kontsumista aipatu eta salatu zuen idazle iruindarrak eta pobreenak ekarri zituen gogora. ETB ere mintzagai izan zuen, oraindik Nafarroa osoan ikusteko aukerarik ez dagoela salatuz. Bi bahituen eta preso senitartekoak ere gogoan izan zituen.



Mikel Aranburu
Eusko Ikaskuntzako lehendakariordea

■ Mikel Aranburu Urtasun iruindarra aukeratu zuten Eusko Ikaskuntzako Nafarroako lehendakariorde joan den abenduaren 21ean egindako batzar nagusian. Aranburuk datozen hiru urteetan beteko du bere kargu berria. Mikel Aranburu Ekonomia eta Enpresa Zientzietan eta Zuzenbidean lizentziatua da, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan da irakasle. 1981. urtetik da Eusko Ikaskuntzako bazkide. Ekonomia eta folklore alorretako kide da. 1994an elkarteko idazkariorde izendatu zuten eta kargu horretan egon da orain artean. Euskal kulturaren barruan burutu duen lanari dagokionez, dantza tradizionalen berreskurapena eta bertako musikologia jorratu ditu. Euskal Herriko Txistulari Elkarteko lehendakaria da, hain zuzen ere.

ahaztu gabe!



OSKORRIEN KONTZERTUA

Atarrabia: Udalak Gabonak dirrela eta euskaraz antolatutako egitarauaren barruan, Natxo de Feliperen Oskorri talde beterranoak kontzertua eskainiko du bihar Lorenzo Goikoa kiroldegian. Oskorriko taldekideen emanaldia gaueko hamar eta erdietan hasiko da. Kontzertu berezia izanen da, gainera, Oskorri bihar eskainiko duena, taldearen 25. urtemuga ospatzeko Nafarroan eskainiko duen lehendabizikoa izanen baita. Oskorri bere ikuskizun berria aurkeztuko du biharkoan Atarrabian. Betikoak eta ezagunenak diren abestien bertsio berrieekin batera, Oskorriren azken laneoak ere entzun ahal izanen dituzte Lorenzo Goikoa kiroldegian bilduko diren guztiak. Oskorriko taldekideek, euren azken lanaren grabaketan bezala, Kepa Junquera trikitilaria eta beste hainbat musikari izanen dituzte lagun biharko kontzertu honetan. Oskorriren kontzertua ezezik, aipatu behar da zinema eta antzerki emanaldiak ere antolatu dituela Atarrabiako Udalak Eguberrietako egitarauaren barruan.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haurrentzako saioa 12.30etan.

Baztan

Alkategairik ez Elizondon eta Almandozen

Errege egunean eta Urteberri egunean batzarreak egin beharko dituzte berriro

Baztango hamabost herrietan alkateak aukeratzeko batzarreak egin zituzten igandean, baina Elizondon, Zigan eta Almandozen ez zen hautagairik aurkeztu. Hori dela eta, herenegun batzarreak egin zituzten berriro Elizondon eta Zigan. Zigan Celestino Elizalde, hautagai bakarra, izendatu zuten alkate. Elizondon alkategairik gabe segitzen zutenenez, Errege egunean beste batzarre bat egitekotan gelditu ziren. Almandozen Urteberri egunean egingo dute.

Ana Unanue / Iruñea

BAZTANGO herrietako alkateen hautaketak ez zuen ikusmin handirik sortu igandean; ia oharkabean pasatu zela esan daiteke. Herri gehienetan alkategai bakarra aurkeztu zen eta zuzenean, bozketarik egin gabe, izendatu zuten alkate. Horrela egin zuten Amaiurren (Bernardo Amiano izendatu zuten), Azpilikuetan (Fermin Barazabal), Lekarozen (Pedro Mari Oskariz), Gartzainen (Juan Arretxea), Iuritan (Maria Isabel San Jose), Arraiozen (Jose Antonio Bergara), Oronozen (Florentino Goñi), Berroetan (Jesus Mari Gamio), Elbeten (Jose Mari Jauregin) eta Anizen (Martzelino Rmentegi).

Bozketa Erratzun eta Arizkun bakarrik izan zen beharrezkoa, bi alkategai aurkeztu ziren eta, Erratzun oso parekatuta ibili



Ana Maria Marin Elizondoko alkateak talde egokia nahi du karguan jarraitzeko.

ARTXIBOKOA

ziren Juan Luis Karrikaburu, orain arteko alkatea, eta Xabier Ospital: Karrikaburuk 61 boto jaso zituen eta Ospitalek, berriz, 57. Ondorioz, Karrikaburuk alkate karguan jarraituko du beste bi urtez. Arizkun Lorenzo Bikondo alkate izandakoak 16 boto besterik ez zituen jaso alde, eta herritarrek Juan Jose Garbaleña, hautagai berria, aukeratu zuten alkate (honek 84 boto bildu zituen).

Almandozen ez zen hautagairik aurkeztu eta, Pedro Jose Arretzek karguan jarraitzerik ez zuela

nahi esan zuenez, Urteberri egunean beste batzarre bat egitekotan gelditu ziren. Elizondon, berriz, Eguberri egunean egin zuten bigarren batzarrea. Herenegungo batzarrean igandekoan baino jende gehiagok hartu zuen parte, baina horretan ere ez zen hautagairik agertu, eta hurrengo batzarrea urtarrilaren 6an egitea erabaki zuten. Ana Maria Marin, gaur egungo alkatea, berriro aurkezteko prest azaldu zen horretarako talde egokia lortzen bado. Taldea egon badago, baina laupabost lagun konbentzitu be-

harko nituzke», azaldu zuen Marinek herenegungo batzarrean egon eta gero.

Zigan zorte hobea izan zuten asteazkenean. Bigarren batzarrean alkate izateko prest agertu zen Celestino Elizalde Osakar, eta zuzenean aukeratu zuten, bozketarik egin gabe. Bistan da, hala ere, baztandarrak gero eta motelago dabilzala euren herrietako alkateak aukeratzeko orduan. Alkateak kompetentziak galtzen joan diren neurrian, herritarren partehartzeak ere beharra egin du nabarmen. X

Azkoien

Eliza berriro zabaldu dute, erabat berrituta

■ Zaharberritze lanak 18 milioi pezeta kostatzen dira

Erredakzioa / Iruñea

AZKOIENGO ELIZA, azken hiru hilabeteetan itxita egon ondoren, astelehenean zabaldu zuten berriro, erabat berrituta. Zaharberritze lanak 18 milioi pezeta kostatzen dira (720.000 libera), eta amaiteko alboetako erretaulak besterik ez zaie falta. Lanak Iruñeko Guillen enpresak egin ditu, eta ikusmin handia sortu du: astelehenean 1.500 herritar elkartu ziren eliza nola gelditu den ikusteko.

Azkoiengo Udaleko azken osoko bilkuran, berriz, Bardeetako tiro poligonoaren aurkako mozio bat eztabaidatu zuten. Militarrei Bardeetatik aldegin dezaten eskatzeko mozioa Azkoiengo Ezker Batuak (UPEI) aurkeztu zuen, baina ez zuen aurrera egin, zinegotzi sozialista bat abstenitu egin zen eta. Mozioaren alde bozkatu zuten UPEIko hiru zinegotziek, CDNkoak eta Florencio Gutierrez sozialistak. Alkateak eta UPNko beste lau zinegotziek, berriz, kontrako botoa eman zuten. Aldekoak eta kontrakoak berdinduta gelditu zirenez, Jose Miguel Martinez PSNko beste zinegotziaren esku gelditu zen azken erabakia. Martinez abstenitu egin zen, ordea, eta ondorioz mozioa atzera botatzea erabaki zuen alkateak. Ezker Batuak gogor kritikatu zuten zinegotzi sozialista horren jarrera, eskuinari amore eman ziolakoan. Martinezek tiro poligonoaren desmantelamenduz hitz egiteko «goizegi» dela argudiatu zuen. X

Iruñea

Bosgarren urtebetetzea ospatu du Nafarkariak

■ Zaldiko-Maldikon afaldu zuten kolaboratzaileek

Erredakzioa / Iruñea

ESKU ARTEAN duzun gehigarri honek bost urte bete dituela eta, Nafarkariako kolaboratzaile eta lagunek afaria egin zuten joan den astean Iruñeko Zaldiko Maldiko elkartearen. Urtero bezala, Luxia Goñik prestatu zuen afari goxoa.

Irrintzi multimedia dorretik tropelean, janari usainean, agertu ziren EGUNKARIAKO eta EUSKALERRIA Irratik langileak —ezagun dute horiek urtean behin bakarrik afaltzen dutela taxuz—. Eta, haien atzetik, gonbidatu ilustratuak. Han egon ziren, besteak beste, Felipe Rius, Xanti Begiristain, Josemiel Bidador, Xamar, Juanxo Urdirioz, Jon Alonso, Asisko Urmeneta, Pello

Lizarralde, Bingen Amadoz, Patxi Larrion eta Patxi Huarte. Datoren urterako libururen bat argitaratu edo sari garrantzitsuren bat irabazten ez dutenek Nafarkariako afarian agertzerik ez dutela izango komentatu zuen norbaitek eseri aurretik, jakina baita orrialde hauetan idazten dutenek merezimendu handiak egiten dituztela horretarako.

Martxelo Otamendi EGUNKARIAKO zuzendaria berandu heldu zen, urtero bezala, eta urteroko galderak aditu behar izan zituen: «Noiz banatuko da Nafarkaria Euskal Herria osoan?», «Noiz aterako duzue EGUNKARIA gaztelaniaz?», eta abar.

Afalondoan, urtean zehar egindako lana eskertzeaz gain, Nafarkarian aurki egingo di-



Afari goxoa prestatzeaz gainera, afalondoan bertsoak bota zituen Luxia Goñik.

ANA UNANUE

tuzten berrikuntzen berri eman zuen Alberto Barandiaranek. Itxuraz dezente aldatuko da Nafarkaria, baina erronka handiena edukiak egokitzea izango da; norbaitek «Eusko Ikaskuntza es-

tiloa» deitu zuena erabat baztertu gabe, gaurkotasan handiagoko gaiak heltzen saiatuko dira Nafarkariako arduradunak. Kolaboratzaile batek esan zuenez, lan nekeza izango da hori, herrialde

honetan modernitate gutxi omen dago eta. Apustua egingo dago, ordea. Era berean, kolaboratzaile berriak eta herrietako informazio zabalagoa sartzeko asmoa agertu zuten Nafarkariakoek. X

Zazpi

Espero bezala, zazpi garrenen erori zen. Azken basoari azken zurrupada eman zion, eta begietara so egin zidan. Haren begi marroi argiek, haren begi xarmanteak, haren begi kilikagarriek...

Lurra jo zuenean, basoak hamaika zatitan egin zuten eztanda. Beatriz, aldiz, ez zen hautsi. Su Gorriak jota lurrera seko erori eta gero, Beatriz beti bezain eder ageri zen. Lurrean botata, tabernetako zoluetan sortzen ohi den ixurki nazkagarrian...

Tabernako gainontzeko bezeroak Beatrizengana hurbildu ziren. Ni Beatrizegandik, bezeroengandik, tabernatik, mundutik urrundu nintzen. Begiak ilun nituen, baita burua eta bihotza ere, guztiak tabernetako zoluetan sortzen ohi den ixurkia bezain ilun.

Sei

Pare bat ordu lehenago elkartu ginen. Beste hainbatetan bezala, bederatzietan Sua tabernan egin genuen zita, gure azken zita. Elkartu ginelarik, ezpainetan musua eman zidan. Nik, musua hartu eta gero, tristoraz beteriko irribarre mehar batez agurtu nuen. Goibel nintzen, baina, espero nuenaren kontra, ez nengoen batera nerbiosturik. Egin behar nuena egin beharra nuela ziur nengoen, eta ziurtasun horrek lasaitu egiten ninduen. Gainera, Suan ginen, gure betiko tabernan, etxean, eta hori ere lasaigarria zen. Lehendabiziko basoak eskatu nituen, eta nirearen edukina disimuloz lurrera jota nuen. Zoluko ixurki iluna mardultzen nuen bitartean, Beatrizek lehendabizikoz besarkatu ninduen gaua gogoratu nuen.

Beatriz Sua tabernan ibiltzen zen beti. Ni baita ere, ni Suan eta Beatrizi begira ibiltzen nintzen beti. Iruindarra naiz, iruindar peto-petoa, eta jakina denez iruindarrok gaitasun berezia daukagu horretarako, neska bati begira eta berarekin harremanetan jarri gabe asteak, hilabeteak, urteak igartzeko hain zuzen ere.

Gau hartan, haatik, berarekin harremanetan jarri nintzen. Ez nuen beste irtenbiderik izan. Lagunekin nintzen, ohiutari jarraiki Beatrizi so. Ezti koloreko bere begi biziek hamaikagaren aldiz hateri begira harrapatu nindutenean, supitoki nigana hurbildu zen. Nire begirada harrituaren pean eta koadrilako zurrumurruen artean, besarkatu egin ninduen, eta musu bero, heze eta luzea eman zidan. Orduara arte ateo amorratu banintzen ere, musu horren laguntzaz fedea argia ikusi nuen.

Etxepeko tabernan, bada Eduardo Gil Bera edota Patziku Perurena foru pentsalari orojakileen pareko filosofo herrikoa. Mus jokalaria da bera, eta kartak jasotzen dituen bakoitzeari, Santo Tomasek Jaungoikoa existitzen dela frogatzeko asmatu behar du kolokan jartzen ditut. «Kaben Dios! Beno, kaben Dios baldin eta badago, dagoenik ez dut uste eta; izan ere, existitzeokan ona izan beharko luke, eta ona balitz ez lizkidake horrelako kartak bidalko.»

Beatriz ezpain beroak nire ezpainetara itsatsita nabaritzen nituela, filosofo musulariaren mintzoa etorri zitzaidan burura. Oker zebilela argi bezain garbi ikusi nuen. «Musean munduko kartarik txarrenak hartuko banitu ere, ez nuke Jaungoikoaren existentzia dudari jarriko, argi baitago une honetan miraria gertatu dela, Beatrizek ni musukatzea kriston pareko miraria da eta», pentsatu nuen nere golko kristautu berrirako. Esaera zaharrak diotenaren arabera, Iruñean ligitzea ez da pekatua, aitzitik, miraria da. Nik Beatrizekin ligitzea, beraz, inolako ezbarrik gabe Ama Birginaren agerraldi baten ondorio zuzena izan zen.

Bost

Beatrizek berehala burutu zuten estreinako basoa. «Fuerte samarra da», esan zuen berak. «Tira, ez da horrenbesterako», erantzun nuen nik. Giroa ez zen alegia, ez eta elkarrikizeta animatuegia ere. Hitz egitea, bestealde, lan nekeza zen, betiko zerbitzariak musika, beti bezala, oso altu jarrita zeukan eta. Beatriz burua entzungan zen kanta zaratuaren eritimoan mugitzen hasi zen. Nik bigarren errodna eskatu nuen. Disimuloz, emeki-emeki, nire basoaren edukina berriro ere lurrera jota nuen. Zoluan zurrumbilo beltza osatu zen. Nire garunean baita ere, nire garunean zurrumbilo beltza, malenkolia zurrumbiloa osatu zen. Ez nuen, baina, nire burua salbatzeko inolako ahaleginik egin. Ez neukan indarrik. Ez neukan gogorik. Iraganean murgilduta, oroitzapenetan ito nintzen.

Elkarrekin ateratzen hasi gineneko garaia, etengabeko besarkadez, musuz eta laztan ez beteriko gauek gogoratzen

hasi nintzen, eta horietako batean egin nion galdera sakona etorri zitzaidan burura: «Zer nahiago duzu, txinatar flana, hautsekin egindakoa alegia, ala ohiutura zaharrei jarraiki arrautzekin egindakoa?». «Txinatar flana, jakina», erantzun zidan.

Garai hartan lagun askori egiten nien galdera hori, eta Beatriz izan zen entzun nahi nuena, txinatar flana hobe zela erantzun zidan lehendabizikoa. Sekulako poza sentitu nuen, eta poz horrek ordura arte ikzutuan, inori azaldu gabe mantentzen nuen nire bizi-filosofia Beatrizi azaltzeko behar adina indar eman zidan. Nire bihotzeko azukre koxkorra filosofian nirekin bat etor zitekeen, Marx eta Engels bezala, Kixkik eta Mixkik elkarrekin Kaxkameloni aurre egiten diotenean bezala.

Azalpena urduri eta kasik ahopeka hasi nuen. «Baserriko flanen arrautza zaporea jasanezina da, eta hautsekin egindako flanen gelatina, berriz, zora-garria. Flanen metafora honек kasik Konfunzio -flana bezala txinatarra bera ere- filosofoaren maisutasunez azaltzen du nire filosofia. Naturalak, herrian egindakoa, ez dauka zertan hirian egindakoa baino hobe zela izan beharrik.»

Beatrizek barre egin zuen, eta zuzen nembilela esan zidan. Horrek neure buruarenganako konfidantza areagotu zidan, eta ozenago segitu nuen. «Gure artean hiritarra izatea pekatu bilakatu den honetan, hiritartasuna, hiritar harrotasuna aldarrikatu beharra dago. Hiritarra naiz eta harro nago!», Barrez lehertzen ari zela. «Hiritarra naiz eta harro nago!» erreplikatu zuen.

Nik nirearekin segitu nuen, nire buruaz erabat seguru, Arzallus banintz eta EGiko gaztekoen aitzinean banengo bezala. «Hiritar harrotasuna ez da pekatua, ez dago zertan purgatu beharrik. Asteburuetan jendeak hiritik mendira edota herrira ihes egiten du, hiritar izatearen pekatua purgatzeko xedearekin. Nik ez dut horrelako xabieraldietan parte hartzen. Ez naiz mendira joaten, ezta herrira ere, eta kasik inoiz ez naiz kirolean aritzen. Iruñean bizi naiz, eta gustura gainera. Mendira joan behar dela? Hor dago Navarreria kaleko aldapa goiti eta beheti ibiltzeko». Beatrizek txaloak eta barreak alde batera utzi, eta besarkada bero batez, eta musu kiskaltzalde batez saritu zuen mintzaldiaren azken atala. Instant horretan, nire bizitza osoan beste inoiz ez-bezala, erabat zoriontsu sentitu nintzen.

Lau

Beatrizek bigarren basoa akitu zuen. Musika gainditu ahal izateko oihuka. «Zer nahiago duzu, txinatar flana, ala hauts flana?» galdetu nion. Burua kanta zaratsuaeren eritimoan mugitzeari utzi zion, eta irribarrearen esperanteratu zitzaion. Bere hortz zuriak eta hortzoi gorriak agerian geratu ziren, eta diridra egin zuten. Nire begiek ere, liluratu, distira egin zuten. Aho zuri-gorri zoragarriak beste bi baso eskatu zizkion zerbitzariari. Ez zion musika aldatzeko eskatu, baina zerbitzariak musika aldatu zuen. Kanta lasaia bat jarri zuen. Gu bion arteko giroa epeldu egin zen. Akaso musika lasaia egiteko traba gutxiago jartzen zituelako, agian, batek daki, edandakoa zela kausa ahoa zertxobait berotuta zuelako, Beatriz izan zen orduan aspaldiko kontuak gogoratzen hasi zena: «Gogoratzen al duzu ehizean eman genuen gau hura?».

Nola ez, bada? Uda hasierako lehendabiziko gau epel horietako bat izan zen hura, gau epel eta iluna. Ilbeharaan ginelarik, ilargirik ez zen kasik. Izarren dirdir indartsuak txundituen gintuen. Golari begira, mutikote musu gorriaren azalpenak itsu itsuan segitzen genituen: bere hatz mardula nora, gure begiak hara. Gurdia eta ipar-izarra erakutsi zizkigun, eta segituan guk zeruko Frantses Bidea segitu behar genuela azaldu zigun. Bide hori bera segitzen bai omen zuten ehiziek.


Herriko mutilzarren laguntzaz, basapiztiak inguratu genituen, inondik ihes egiterik eduki ez zezaten. Musu gorriak irrintzia bota zuen. Ehizean hasteko seinalea zen. Oihu eginez birikiak behin eta berriz hustu genituen, eta lapikoak elkar joka ahal izan genuen zaratarik handiena ateratu genuen. Haatik, ez genuen gurekin generamatzen sareak anmaltzen galnean botatzeko paradarik izan. Beatriz eta biok bidean inolako harrapakinik topatu gabe bat egin genuen mutikoteekin. «Hau zorte txarra», esan zuen Beatrizek. «Heldu den urtera arte itxaron beharko dugu», gaineratu nuen nik. Mutikoteak, berriz, ez zuten deus esan. Tristora keinuak txikiena ere ez zuten egin. Aitzitik, barre eta algaraka hasi ziren.

Egun batez hiriko giroa alde batera utzita, gau hartan Basaburu ballarako herri horretako jaletara joan ginen. Heldu bezain pronto, herriko gazteek marraskilo-pasaren garian ginela azaldu ziguten. Urtean behin, uda Pirinioak haratago igartzeko xedeak bultzatuta Iparrerako bidean, Basaburuian milaka marraskilo elkartzen direla esan ziguten. Halaber, gipuzkoarrek zizekin egiten duen sarraski bera egin ez dezaten ballarakoek marraskilo-pasari publikatuzterik ez dituela eman ten azaldu ziguten. Hala ere animalioek errepedean utzitako arrastan irrist egin eta gero urterio-urferio kamioren batek istripua izaten duela gauza jakina dela gehitu zuten. Barre eta



Iruñeko Udalak egile berrizako euskarazko literatur sariak banatu berri ditu. Narrazio Laburra sailean saria Juan Kruz Lakasta EGUNKARIAko lankideak eskuratu du, 'Zazpi Suro' ipuinari esker. NAFARKARIAN bertan 'Navarrieriako iturritik' lehen argitaratu zitubatek inspirazio iturri hartuta, Juan Kruz Lakastak bigarren arteko amodio istorio korapilatsua kontatu du. Ipuinaren laburpen ondorengoa.

Zazpi Su Gorri



algarak entzun arte ez ginen guztia ziri sartzea zela jabetu: hiritar peto-petoa eta harro-harroa izatearen truke ordaindu beharreko zerga. Hala eta guztiz ere, gau mundiala izan zen hura, gau ilun, epel eta mundiala.

Hiru

Beatrizek bere hirugarren basoa amaitu zuelarik, marraskilok buruan, barrezka ari ginen biok. Zerbitzariak, bi baso gehiago ateratu zituen. Beatrizek begietara so egin zidan. Baziren beste batzuk, aupikaren tesia, esate baterako. Aupikaren tesia esaldi bakarrean laburbildu daiteke; jendea 'Aupika' esanda agurtzen duen edonor ez da, halaber, enroillatu zatarrak, baina ezbarrik gabe enroillatu zatarrak izateko aupikak ibiltzeko asko laguntzen du.

Aupa esamolde jatorri abiapuntuztat hartuta, Iruñeko Alde Zaharrean adio esateko dozenaka modu sortu dira, filologia tesia mardula osatzeko behar bezainbeste. Adibidez, Jarauta kalean, jarauteraz, beraz, apa, epa, lepa, ieup, afa eta aubi bezalakoak sortu dira. Caldereria karrikari, caldererieraz, berriz, aupa, aupika, aupiki, iepi eta upi. Halaber, agur hitzak zenbait fruitu ustel eman ditu. Esaterako, jarauteraz agurtxo, eta caldererieraz agurikos. Aranista garbizalea ez banoa ere, banoa esamoldean aurkari sutua, horiek darien enroillatu zatar kiratsa dela kausa. Enroillatu zatarrek, jakina, nazka ematen ditate. Gau hartan, zinematik bueltan, Beatrizek 'Aupika' esanda agurtu, eta aho bete hortz utzi ninduen. «Enroillatu zatarrak ote da nire bihotzeko azukre koxkorra?» galdera zela eta ez zela, ez nuen gau osoan lo egiterik izan. Harrezgeroztik, Beatriz dela eta ez dela, maiz ez dut lo egiterik izan.

Bi

Itxaropena galtzen den azken gaua ei da, eta une horretan azken itxaropen apurra galdu nuen. Buru makur geratu nintzen. Beatriz baita ere. Biok buri makur genbiltzan, biok triste, biok pentsakor, bera nik bera musukatu nahi nuelako, eta ni berak ni musukatu nahi ez ninduelako. Biok zoluko ixurki beltza begiratzen ari ginen. Beatrizek bere basoa edan zuen, lagugarrena, eta nik trabeska egin nion so. Sudurrean zheraman belarritakoa ikusi nuen. «Enroillatu zatarrak al da nire bihotzeko azukre koxkorra? Bada, bai, tamalez hala da, bai», pentsatu nuen. Amorruta sentitu behar nuen, baina pena besterik ez nuen sentitu, sekulako pena. Beatrizek ez ninduen musukatu nahi, Beatriz enroillatu zatarrak zen, azken itxaropen apurra galdua nuen jada, amaiera zen...

Aupikak hastera amaieraren hasiera izan zen. Hortik aurrera Beatriz Iruñeko Alde Zaharreko enroillatu zatar batek egin behar duen guztia egiten hasi zen. Esate baterako, poteatzen ari ginenean edozein agurtzen zuzenean ezpainetan musua ematen zion. Igual zion agurtutakoa gustukoa bazuen ala ez. Agurtutakoa gorrotatzen bazuen ere ahoan musua ematen zion. Agurtu beharreko guztiak agurtu eta musukatu eta gero, txaloka hasten zen. Tabernan jartzen ari ziren musika gustukoa ez bazuen ere. Tomatitoren pareko mala jolea baillitza txaloak jotzen zituen, eta burua astindue egin zuten, eritimoaren indarrak zorabiatuta, nonbait. Sanferminetako gau batean sudurrean belarritakoa jarri zuen, abuztuan zilborrean gauza bera egin zuen, eta irailaren hasieran enroillatua gaur gauruzera heldu zen. Bizkarrean tatuajea egin zuen, arrosa txiki bat ipurdia eta bizkarrean arteko mugan. Tumaxa.

Ez ziren garrantzi handiegirikoz gauzak, baina urduri jartzen ninduten. Urduri enroillatu zatarrak zirelako. Urduri niri enroillatu zatarrak nazka ematen zidatelako. Urduri Beatrizek eta enroillatuago bilakatzeko zirelako. Urduri, Beatriz enroillatu gero eta gustukoago zituelako. Urduri, ni enroillatu ez nintzelako. Urduri, finean, martxa horretan, Beatrizek aurki ez ninduelako gustuko izanen.

Bat

Amaieran ginen jada. Egin beharreko lana burutzeko gutxi falta zen, baina ez neukan segitzeko behar adina indarririk. Tristorak itozten ninduen. Falta zitzaidan kemena basoaren ipurdian bilatu nuen. Gau osoan estreinako, ez nuen edalontziko edukina lurrera bota. Zurrupada bakarrean edan nuen. Beatrizek ere azkar edan zuen berea. Ez nekien zer esan. Esan beharreko guztia esanda zegoen. Nire begirada gobelak barraren atzean hustu ari ginen botila topatu zuen. Horri so, nire bizitza hutsik, basamortua baillitza utzi zuten San Fermin Txikitoko gaua etorri zitzaidan burura.

Tatuajedun Beatrizekin ez nintzen lehen bezain ongi moldatzen. Gauzak gure artean ez zebiltzan ongi. Ez nuen, baina, gertatu zena gertatzerik espero. Gure jaiek ziren, hiri festak, Iruñeko Alde Zaharreko pestak, eta parrandan gustura genbiltzan. Ni, bederen, oso gustura nenbilan. Bera, azkenean gertatu zena gertatu zela aintzat hartuta, ez dut uste horren gustura zebilenik. Beatriz eta biok Meson tabernatik atera ginelarik, Navarrierako iturriaren pean paratutako eszenatikian 'Macarena' pieza gogalkarria jotzen ari zen Ciclón izeneko plaza taldea. Ekintza gupidagabe hori gutxi baillitza, segituan —Manolo Escobaren antza izugarria zuten abeslariak Macarenak Maria izeneko lagun mina zuela azaldu eta gero— 'Maria' jo zuten haize zakarreko zikloiak: «Un, dos, tres, un pasito p'alante Maria, un, dos, tres, un pasito p'altras...».

Argi bezain garbi genekuan 'Macarenaren' eta 'Mariaren' gibeletik 'El Tiburón', 'El Venao' eta 'Emoxtau muxutxue' gorrotagarria helduko zirela, eta gu ez gunden horiek guztiak pairatzeko prest. Macarenak lehen txinparta iraultzaileak piztu zituen gure barne su iraultzaileko txingar itzalezinen artean, eta Mariak txingarrok su gar bilakatu zituen.

Gauzak horrela, iraultza planifikatzeari ekin genion. Abangoardia ezinbestekoa da iraultza egiteko tenorean, eta gu Navarrieria plazan bildutako herri xheharen bangardia izateko

prest geunden. Lehenik eta behin, eszenatokia Neguko Jauregia baillitza hartuko genuen. Jarrailan, gogor zigortuko genituen herriaren oipioa, kanta gerri-mugierazte gogalkarri horiek hedatzen ari ziren musikari aburgesatuak. Gero, Pantxo eta Pello ipar harturik, gizaiki berria hezikio genuen. Gora Leñ! Gora Pantxo! Gora Pello! Palante Maria!

'Palante Maria?' Bada... bai, iraultza planifikatzen ari ginela, supitoki, kasik konturatu gabe, aurrera eta atzera egiten zuten giza-marean murgildu ginen, un pasito p'alante eta un pasito p'altrasika. Kantariak 'p'alante' abesten zuelarik, guk 'intsumisioa' oihukatzen genuen, eta 'p'altras' entzuten genuean 'militarrak', baina, Beatrizek esan zuen bezala, «Leñnek, burua altxatuko bala, ez luke inondik inora gure portatera ereformista negargarria onartuko». Beatriz eta biok elkarri galdera sakonak egiten hasi ginen: Itzalgarriak ote ziren gure barne txingar iraultzaileak? Zaharthen hasiak al ginen? Nondik gertozen? Nora gindoazen? Bakarrik al geunden Unibertsioan? Fondorik gertatzen al zitzaigun?

Barrezka hasi ginen. Bapatean, baina, Beatrizek barre egiteari utzi zion. Zer edo zer txarra esan zuela iruditu zitzaidan, eta esan zezakeen gauzarik txarra esan zuen: «Oso jatorra zara, zure laguna izaten segitu nahi dut, eta nobloak izaten segitzen badugu, ezinezkoa izanen da». Ssstupendo! Beatriz nire lehendabiziko neska laguna zen, baina halere eskarmentu dexente neukan laguntasunari buruzko zorioneko esaldi hori zegokionean. Aski ong nekien zer esan nahi zuten horrek: «Ahu hori, utz nazazu pakean», hain zuzen ere. Hori bera esan zidaten Nreak, Carmenek eta Mirenek: «Ez naiz zurekin ateratzen hasiko zure laguna izaten segitu nahi dudalako». Lagun minak ziren guztiak, bai, min ematen zidaten lagunak.

Zero

San Fermin Txikitoko gau hori gogoratzeak sentitzen nuen tristura min bilakatu zuen. Mina baretzeko xedearekin, berriro ere edabea irentsi nuen. Nire bigarren basoa zen, Beatrizen segigarrena. Urdalak bera ere minduta zegoela gogorazti zidan. Bezerpako gehiegikeriak zirela kausa, ajeak jota nengoen. Edabea urdiera heldu bezain pronto min ziztada nabaritu nuen ziztada.

Ez zen harriztekoa, bezperan harrapatu nuen atxurra kontutan hartuta. «Ateraldiaz daukazun edaririk pozoietsuena», esan nion zerbitzariari Suara heldu bezain pronto. Zertxobait harritu zuen, Sanfermin Txikitoko burutu berriak zirela, ez zuten eta egun horretan ez ni ez eta beste inor ere mozkortu nahi izatea espero. Halere, etiketa bitxiko patxaran botila ateratu zidan. «Euskaldunon Egunkariako tonbolan oparitu didate, eta ez dut mundu zabalean hau baino patxaran txarrogirik dagoenik», esan, eta baso bat patxaran jarri zidan. Lehendabiziko zurrupada ezartarian behera abiatu bezain pronto, zerbitzaria zuzen zebilela, edabe madarikatu hori Miguel Sanzen hiltzaldia baino txarragoa zela nabaritu nuen. Hala ere, beste bat eskatu nion, eta gero beste bat, eta beste bat...».

Triste nintzen, triste. Halako batean Suako zerbitzariak Hertzainak kanta zaharra jarri zuen. «...Nere begi urdin, zu joanik ere berdin, bai pozik natzela...». Beatrizen begiak ez ziren urdinak, marroiak ziren, marroi argiak, baina hala eta guztiz ere kanta nire bihotza pairatzen ari zen tristoraren zama astuna arindu zuen. «...Gaur, gero, neska gazte, eskua dut emazte...». Gariren ahotsa lagun, zertxobait alaitu nintzen, eta, instant batez, Onanen erresumara gustura bueltatuko nintzela pentsatu nuen. «... Ni neu neronin jabe, beste beharrik gabe...». Berotu egin nintzen. «Hori da, bada, burujabetasuna! Independentzia! Aterapausorik ez, ezta abiada hartzeko ere! Eskua ala hila!» pentsatu, eta ukabildaka jo nuen Suako barran.

Mina hartu nuen, sekulako mina, eta mindutako eskuari, eskuinekoari, Onanen eskuari so geratu nintzen. Ez zen, inondik inora, Beatriz bezain polita, ezta pentsatu ere. Onanismoan aisialdian eta zaletasuna duzulako aritzea ongi dago. Halaber, bakarriz zaudelako, inork ez zaituelako maite aritzea, aldiz, arras ezberdina da. Hori tristea da, hagitza tristea. Onanen besarkada bakartari buruz pentsatzeak sekulako tristura sentiarazi zidan, tristura mugagabea. Kampala jotzeari buruzko aburuek heriotz kanpal hotsak zabaldu zituzten nire burmuinean barna. Arestiko galdera erantzun nuen: «Eskua ala hila?» Bada... hila. Nor hilko nuen, baina, neure burua ala bera? Neure buruak, jakina, bera akatu behar nuela esan zidan. «Zure lagunza izaten segitu nahi dut», alua!

Beatriz hiltzeko gogo bizia sentitu nuen, eta gogo hori ito nahian, beste patxaran bat eskatu nuen. Zerbitzariak kontuz ibiltzeko gomendatu zidan: «Aldi ibili gero, jada sei daramatza-zu, eta ez dut uste inork zazpi jasan ditzakeenik». Egia zen, lur jota nengoen. Gauzak horrela, ez nuen zazpi garrena edan, eta, beraz, ez nuen Beatrizek erahiltzeko gogoia ito.

Zerbitzariari telefonoa eskatu, eta Beatrizi deitu nion. Bihar munean elkarrekin mozkortzeko gonbita egin nion. «Zer, Beatriz, ez diozu lagun min baten eskaintza muzion egiten, ezta?». Gogoz kontra, seguru asko, onartu egin zuen. Bederatzietan egin genuen zita. Suan bertan, gure betiko tabernan, etxean. Suatik aldegin aurretik, lotu beharreko azken gauza lotu nuen. Zerbitzariari patxaran pozoietsu horren izena galdetu nion: «Su Gorri deitzen da».

Xanti Begiristain

Eguberriak eta zarrastelkeria

■ Beno ba, Eguberrietan gaude bete-betean. Azkenean iritsi dira urtero bezala. Batzuentzat oso pozgarriak eta beste batzuentzat aldiz apalgarriak. Nahi gabe ere, urteto-urtero etortzen zaizkigu garaiz eta inolako hutsik egin gabe, fededun nahiz sinesmen gabea izan.

Eguberri buruz gauza asko esan litezke, esate baterako, jatorria, esanahia, zentzua gaur egun, ospatzeko moduak, elkartasuna eta abar. Baina kontzeptu horietan ez dut sakondu nahi gaur. Oraingoan afera hori utziko diet apezpei eta askoz ere trebeagoak diren beste aditu batzuei.

Gaur idatzi xume hau kokatu nahi dut kontsumo-gizartearen inguruan. Zeinen zaila den gure gizarte honetan horretatik ihes egitea, ez da hala?

Mundu honetan zoritxarrez oso alde handiak daude gizarte batzuetatik beste batzuetara, eta horrela gertatzen zaigu, egun hauetan ere, jende asko gose den bitartean (horietako anitz dagoeneko hilda egonen da eta beste pila bat beranduago hil eginen da) lehen munduko beste gehienok kopetaraino jartzen gara janez eta edanez batere lotsatu eta gorritu gabe. Ia guztiok gaudituak izanen ditugu gure neurriak haragiak direla, arrainkiak direla, edariak alde batetik, turroiak eta goxokiak bestetik. Ezin ditut ahaztu inola ere opariak, apaingarriak, arropa garestiak, jostailu desgokiak (belikoak, sexistak...), gehiegizko erosketak, kaleetako argiak, pinuak, zuhaitzak, jaiotzak, bat eta beste.

Hitz gutxitan, gehienok uzten dugu gure burua korrante nagusiak eramaten. Batzuek konturatuta eta besteek gehiegi ohartu gabe, baina orokorrean, nonbait, eroso samar sentitzen omen gara eta ez dugu borroka handirik egiten horren aurka nahiz eta kasu gehienetan kaltegarria izan gure osasun eta patrikarako.

Gehienok gara, gehiago edo gutxiago, *bekatari* handi samarrak kontsumoari dagokionez.

Dena den, nahiz eta gauza askorekin ni ez naizen konforme, hala eta guztiz ere, uler dezaket badaudela aitzakia batzuk, pixka bat justifika litzaketenak gorago aipaturiko gehiegikeria horiek; konparaziora, ulertzen dut pertsonak gozaten duela jaten, edaten, erretzen eta abar egiten, gainera jenero garesti eta *desegokiek*. Dastamenari behintzat gozatua ematen baitzaio. Era berean ere, erraz uler dezaket gizakiari atsegin gerta dakiokoela jantzi eta bitxi garestiak luzitzea, opariak egitea bere burua leku onean uztearren, etxean apaingarriak jartzea auzokoa baino gutxiago ez izateko, auto berria erostea diru kontuan ongi gabiltzala ikus dezaten eta abar. Mila adibide jar litezke. Baina badago gauza bat, Gabon gauean zeharo harritu ninduen, alegia, goizaldeko hiruretan, herritik itzuli ondoren, Iturrama auzoan, leihotik erreparatu nuen aurreko etxeko balkoi askotan argitxo bana piztuta zegoela. Neure buruari galdetu nion «baina zer arraio pintatuko ote dute argitxo horiek hor, balkoi horietan, ordu hauetan? norentzat argituko ote dute?». Jakin beharra dago balkoi horiek 3., 4., 5.... eta 8. solairuetan zeudela, eta bertan, jakina, ordu txiki horietan ez zegoen inor. Neure buruak ez zidan argitasun handirik eman. Zalantza askorekin jarraitu nuen: «Beren burua nabarmentzearen baino ez ote dituzte piztuko direlako argi horiek, nahiz eta beste eginkizunik ez izan?». Auskalo! Gauza bat ziurra da: argitxo horiek kontsumitu behintzat seguru egiten zutela. Norentzat? Zertarako?... Joan eta bila ezazu!

Ondorio txiki bat. Munduan hainbat pertsonak oinarritzko premiariak beharrezkoenak asezteko modurik ez dutela ikusita, uste dut, lotsa eta apaltasun pixka bat ez litzazukeela batere gaizki etorriko lehen munduko askori. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Jose Maria Anpuero, bizkai nekazarien laguna

■ Ez dakigu ordea Mogelen aikoarekiko ahadetasuk ote zeukanentz, amaren aldetiko amatxirengandik jasoa bederen, laugarren abizenak salatu gisa, Elgezabal deiturak hots, aipatu eta ezaguna den Anpuero, nahiz Jauregi eta Maguna hirukotearen ondok zetorkiona. Durangon 1837.eko martxoaren seian sortua, eta bizkaitarra hezur muinetaraino izanik ere, Madrilen usuen usu ibili beharra izan zuen Josemarik, gorietako diputatu bezala, eta agian horregatik bertako Milagros del Rio izenekoarekin esposatu zen. 1916.eko irailaren 13an zendu zen.

Largatu zizkigun lan gehienek nekazaritzarekin lotura hertsia erakusten digute, haatik bestelakorik ere bazuen ondu Durangaldekoak, esate baterako Leon XIII. aita santuaren omenez buruturikoa. Izan ere, honen heriotza zela eta, 1886.eko garagarriaren 24, 25 eta 26 egunetan ospatu Durangoko euskal jaietan aurkezturiko olerkiez osotu bilduma argitara eman zen heldu zen urtean Tolosako Eusebio Lopez Mendizabalen argitaletxean. *Euskal Erriak aita santuari* izenburua zeraman hartan, Anpuero berea gaineratu zuen zarpigarren orrialdean, idazki eskaxtua eta laburra izateagatik ere, ospe handiko bestelako izen batzuen artean bazegoen, inongo gutxiesterik gabe, berbarako, Campión, Soroa, Etxegarai, etabar. Anpueroren *Aita Santu Leon XIII-garrenari*, eskutitz itxura hartzen duen idazkia dugu, eta Elizaren buruari zorionak emateko gutuna litzateke besterik gabe.

Orpumea anagramaz sinaturik, Durangoko euskal jaietan honako erdal lan hau aurkeztu zuen: *Cartilla del agricultor bascongado para uso de nuestros labradores*. Garaitu nonbait ere garaitu zuen, eta lana 1836.ean Bilbon argitara eman zuen, nahiz irabazitako saria aldundiari beritzuli zion. Eskaxian etzen biziko seguru, bestenaz... Martzelino Soroa Lasari eskeini zion honakoak, *Urrutiko intxaurrak* izenburuko bertsoak alde aurretik eskainitakoaren ordea alegia, Purisen aipua du hasikaldi: «La agricultura es la base más segura del bienestar y de la riqueza de un país». Idazkiaren nondik norakoak, Asteteren liburuan du oinarria, alta era zehatz eta sotil batez emana baitator, lau zatitan banandurik.

Guziarekin, guri batik bat interesatzen zaiguna *Nekazariyen cartillachua Bizcaico eusqueran* izenburua daramana litzateke, Bilboko imprenta provincial delakoa 1909.ean. Bizkaiko Aldundiari eskainia dago. Bi zati nabarmenak azaltzen dira, alde batetik, 88 orrialdetan barrena barazki zehatzak ekoizteko aholkuak eta, segituan *Illero urte barruan ein biar diran luguin biarrac* izenburuko eranskina. Lehendabiziko zatian, «durlantzallai asiya» baten ostean, barazki bonbardaketa datorrigu ia gelditzeke: «gariya, artua, lurzagor edo patatia, arbia edo nabua, sarbagorri edo erremolachia, irucocha, auznabedarra edo achicoriya, baba beltza, babia edo indibabia, idarra, aza, coliflora, urraza edo lechugia, piparra, tomatia, quipulia, beracatza, porrua, orburua edo alcachofia, arbigorriya edo zanahoriya, berengena, berrua, sarba, borrayac, malluquiya, ezparragua, errefoua edo errabanua, pepiñua, meloia, arbichua edo maico arbiya». Aipatu eranskinean hilez hileko eginbeharrak finkatzeko ahaleginetan ihardun zuen: «urtella, zezella, epailla, jorrailla, orrilla, baguilla, garagarilla, agorra, iraila, urriya, zemendija, abendua». Zizkion artean, konduel bereziki kasu behatzeko ohartarazten zion luginari: «Con tuac: echecho buru eguiten dabena, euqui biar dau berrarico arduria, echecho sartu urtenac, edo artu emonac contu andiyaz eruateco, bestelan laster icusi lei echia, gautic goizera carmenauta. Alan bada, luguñac, ardura andiyac eruan eguizube eguero, zer artu ta emun dozuben, illaren azquenan, illa guzticua eguizube, ta guero abenduan, errez ataraco dozu, urte guztiyan zer artu dozuben, zer guerutzen jatzuben echian, ta guisa onetan jaquingo dozue, zer saldu edo irabazi dan».

Ahitzeko *asquena* goiburua daraman hatsarrien laburpena zerkargigun, bertan bere pentsamoldearen ezin adierazgarriagoak argikiro azalerazten. Ordurako teknologia berriek ekarri hizimodu aldakuntzaz mintzo zen samin: «Gaurco eguneco gaste ascoc uste dabe, gure gurazo zarrac bizi zirala uren bichen ganian; baña ez. Munduac urte guichiz onunz, beste bat dirudi (...) Gure asabac, zortzi eguneco ogui baltza, ta sebopillaz einico lapicocua, bizcochia lez jaten eben; barriz gaur ogui zuri errebarriya, ta iztarreco oqueliac, edo guichienez egalaz ein baco lapicoco guichi jaten da. Pistola oguiya, fideua ta arroza, urte asco ez dala, andiquyen biyandia zan, barriz gaurco egunian, tutarraz dabiliz edozeinbere echetan, ta andiyena da, ascoc daruela echera, merquiago pase-taco, edo gichiago gastetiaren, pitian-pitian entzun oi dodan leguez. Caffa, ¿Noz artzen zan? Biarguñen echietan gabon gabian, barriz gaur, ez bacarric goizeco jan aldiraco edo barauziten, artu oi da urico echietan, baita bere bazarri puntetan. Betzuenen Oiz ta Achiaco bazarri echietan bere (...) Luguñac, gaurco eguneco oitura ta ecandu charrac eldu dira Euscal-erriyan euren erpiñeraño. Gaurco egunian guztiz da gach Euskal-erriyan bicicaya irabastia, sabelac asco escatu ta gach dalaco gura daben beste emotia. Bestetic gaurco egunian languil alper asco dago, barriz meenac ta pinac guichi, ta gauzaric negargarriyena da ofiziyo mueta guztiyac galduta egotia. Arotzeriyac lur jo dau, zapateritziac ez dau lauziri baliyo, arguintzia ez da mecha erre bat beste, oficiyo onei eguin deutze maquiñeriyac, ibai edo ichasuan arrain andiyac chiquiyai eguin oi deutzena, andiyac chiquiya jan». ■



Iruñea gaztaina usainean

Langabezia dela eta, azken urteotan galtzeko zorian zegoen lanbidea zuzpertz egin du gazte jendeak

Duela hogeit hamar urte gaztaina saltzaile bakarra (Miguel Martinez, Comedias kalekoa) gelditzen zen Iruñean. Miguelek bere betiko txokoan segitzen du oraindik, baina orain beste hamabi lankide ditu, denak gazteak gainera. Gehienak langabezian zeudelako arri-matu ziren suaren epelera eta, beraiei esker, udazkenak ez du gaztaina usain goxoa galdu Iruñeko karriketan.

Ana Unanue / Iruñea

MIGUEL MARTINEZEK 35 urte daramatza Comedias kalean gaztainak saltzen, baina oraindik ez du bere aitaren marka hautsi. Aitak 37 urte eman zituen txoko berean eta, zaletasunaz gainera, gaztainak erretzeko danbolina, tren itxurakoa, utzi zion semeari. Horren alboan hamaika pasadizo ikusi eta bizi izan ditu Miguelek. Bakar bat kontatzeko eskatuz gero, aurten zilarrezko ezteiak ospatu dituzten senar-emazteena aukeratu du: «Gaztainak erosteko ilaran zain zeudela ezagutu zuten elkar. Maitemindu eta ezkondu egin ziren, eta geroztik urtero-urtero egiten didate bisita, azaroaren lehenean, halako egunez ezagutu baitzuten elkar. Sekula ez didate hutsik egin».

Miguel hasi zenean, 1962an, hamabi gaztaina saltzaile zeuden Iruñean. Laster bakarrik utzi zuten, ordea. Industrializazio urteak, belar luzeko garaiak ziren; jendeak nahi adina lan zuen eta beste gaztaina saltzaile guztiak kalea utzi eta fabriketan sartu ziren. Miguel bera ere fabrika batean hasi zen lanean, baina ez zuen horregatik utzi familiako usadioa. Eutsi egin zion eta, berari esker, zenbait gaztek irtenbide bat ikusi zuten 80etako krisiak hondoa jo zuenean. Hala dio behintzat Mikel Alvarezek. 36 urteko bilbotar honek 17 udazken daramatza San Nikolas plazako izkinan: «Ni hasi nintzenean Martinez bakarrik zegoen. Bera egon izan ez balitz, agian ez zen gaztaina saltzailek geldituko Iruñean. Ni lanik gabe nengoen sasoi hartan eta, bera ikustean, irtenbide polita izan zitekeela otu zitzaidan». Josemi Lopez Estafetako kale-kantoiko saltzailea ere garai hartan hasi zen.

Edorta Astraini (37 urtekoa, zazpi Golem zineen alboko txokoan) lagun batek aipatu zion gaztainak saltzeko aukera. Edortak Joseba Etxarri komentatu zion gero, eta hori Carlos III zinema parean jarri zen orain bost urte. Horrela zabaldu zen sarea, eta gaur egun hamahiru gaztaina saltzaile daude atzera. Horien artean denetarik dago (psikologoak, rock abeslariak, soldatzaleak...). Miguel Martinezek berak bi seme ditu gaztainak saltzen: Andoni Antoniuttin eta Mikel Merinaldeen plazan.



Josebe Garaialde, arratsaldero Iturrara zinemaren ondoan jartzen dena, da emakume bakarra. Gaztainak saltzen hasi aurretik rock abeslaria izan zen Belladona eta Matraka taldeetan. Urbasa aldean ere egon zen Josebe, zaldiz ibiltzen irakasten, baina orain ez luke bere bizimodua aldatuko: «Egun guztia kalean zaude, jendearekin tratuan. Hori da hobereena. Ez duzu nagusirik edo uniformerik, ezta azalpenak eman beharrik ere. Gainera, nahiko bizimodu alternatiboa da, artisauena edo Irunberrin ardiel ilea mozten dabilen gazte koadrilarena bezala. Industrializazio garaian galtzeko zorian egon ziren lanbideak dira, eta ongi dago horiek berreskuratzea».

Joseba Etxarri ere ezagun du bere lana maite duela. «Ez nuke ezeren truke utziko, ezta behinbetiko lanpostu batengatik ere. Oso gogoko dut jendearekin ego-

tea, eta beste hiri askotan galdu egin den tradizioa mantentzea. Gaztainak kolorea ematen dio hiriari; udazkena iritsi eta gaztaina usaina hartzen du Iruñean», dio 33 urteko iruindar honek. Joseba eskolaz eskola ibiltzen da, umeei gaztaina saltzaileen bizimodua kontatzen. Berak etxetxo itxurako danbolinean erretzen ditu gaztainak, eta etxetxoaren barruan Fermin izeneko iratxoa, gaztainak bildu eta ekartzen dizkiona, bizi dela esaten die umeei. Haurrak arratsaldero hurbiltzen dira Fermin ikusi nahian, baina oraindik ez dute ezagutu, iratxoak haiek iritsi baino lehentxeago aldegitzen duelako beti.

Baztango eta Galiziako gaztainak • Bistan da gaztainak ez duela urte osoko bizimodua ateratzeko lain ematen. «Niri behintzat ez dit ematen. Udan, as-

teburuetan bada ere, lan egiten badut ongi, baina bestela...», dio Ramon Turrillasek, Baiona etorbideko saltzaileak.

Sasoi urrian hasten da, eta saltzaile gehienentzat urtarrilotsaila aldera bukatzen da. Gainera, ez da egun osoko lana: sua lau eta erdietan pizten dute, eta gaueko bederatziak pasata itzaltzen dute. Horregatik, errenta osatzeko bestaleko zereginetan ibili behar izaten dute gaztaina saltzaileek. Josebak, esate baterako, izozkiak saltzen ditu udan eta noizbehinka albatari gisa aritzen da ITGrentzat. Gaztainak saltzeko baimena eta aukeratu-tako txokoaren errenta 40.000 pezeta inguru kostatzen zaie urtean (1.600 libera).

Sasoi hasieran Baztango baserriarrei erosten dizkiete gaztainak. Nafarroako bertako gaztainak laster agortzen dira, ordea, eta orduan kanpotik ekarri behar

Miguel Martinezek (goian) 35 urte daramatza gaztainak saltzen Comedias kalean. Duela hogeit hamar urte bera bakarrik zegoen. Mikel Alvarez (ezkerrean) hura ikusi zuenean otu zitzaion gaztainak saltzen astea. Mikelek 17 udazken eman ditu San Nikolaseko izkinan.
LUIS AZANZA

izaten dituzte, Galiziatik lehen-dabizi eta Cacerestik gero —ez denek, batzuek ez dituzte oso gogoko Cacereskoak—. Kontu handiz ibili behar izaten dute gaztainekin, oso erraz galtzen dira eta. Baztango gaztainak harrara dute etsai nagusia, baserriarrek ez baitzuzte gaztainondoak tratatzen. Galiziakoak, berriz, berehala lizuntzen dira hezetasunagatik. Ondorioz, gaztaina asko botatzen dute, batez ere garai honetan, eta kiloa ordaintzen dutena baino dezentegaitiago ateratzen zaie azkenean.

Gaztaina kiloa 200-250 pezeta inguru horretan erosten dute, baina batzuetan erdia baino gehiago bota behar izaten dute —uretan sartu eta gainean gelditzen diren guztiak botatzen dituzte—. Zaila da zahaztea zenbat saltzen duten asteen, alde handia dagoelako saltzaile batetik bestera, eta sasoi hasieratik hondarreko asteetara. Gutxien saltzen duenak 100 kilo inguru hartuko ditu asteen, eta gehien saltzen duenak 350 kilo hor nonbait. Osotara, aurten 25.000 kilo gaztaina jango dituzte iruindarrek.

Gaztainak dozenaka saldu ohi dituzte, baina ez dira hamabiko dozenak, hamahiru, hamalau edo hamabostekoak baizik. Dozena 150-200 pezeta kostatzen da, gaztaina kopuruaren arabera. Gaztaina saltzaileek adin guztietako bezeroak dituzte, baina, Josebek dioenez, «umeak dira eroslerik leialenak». X

◆ Itxaro Borda ◆ Idazlea

«Poesia publikatzeko gogoia dut»

Susarekin argitaratu duen azken nobela, 'Amorezko pena baño', aurkeztu zuen Itxaro Bordak joan den ostiralean Iruñean, Durangoko Azokara eraman ondoren. Goizean Iruñean komunikabideen aurrean agertu zen Oragarreko idazleak. Arratsaldean, berriz, Tuteran erakutsi zien Erriberako lagunei liburu berria.

Eduñe Elizondo / Iruñea

AMOREZKO *pena baño* liburuan bere hirugarren abentura bizi du Amaia Ezpeldoi detektibe ospetsuak. Itxaro Bordaren eskuak Erriberako lurretara eraman du oraingoan, bertan istripu misteriotsu bat argi dezan. Amaia Ezpeldoiaren inguruan mintzatu zitzaigun Itxaro Iruñean, komunikabideen aurrean agertu ondoren.

■ Amaia Ezpeldoi Nafarroako lurretara eraman duzu bere hirugarren abentura honetan, eta Erribera deskubritu du, zuk zeuk bezala. Nolakoa aurkikuntza izan da?

Deskubrimendu harrigarria izan da, amestua izan baitzen. Duela zenbait urte, hamar bat, Nafarroara etortzen nintzelarik, Iruñea baino beheago ez ginen sekulan joaiten, eta behin, Susako lagunekin izan ginen Uxerarat, eta han ikusi eta sumatu nuen goxoki bat eman zidatela, kolorea eta haize hotz hura, negua zen gainera, eta beti pentsatu izan dut Uxue baino beheago ere joan behar genuela, eta noizbait gertatu da hori, ausartzia hori, bideak hurruntxeago eraman ditugu.

■ Basamortua deskubritu duzula aipatu duzu.

Bai, hori obsesione bat bezala nuen Paristik itzultzean, ez nuen gehiago neure burua hiri handi



Amorezko pena baño liburua aurkeztu zuen Itxaro Bordak joan den ostiralean Iruñean.

JOXE LACALLE

batean asmatzen. Zuberoa ere bere moldean basamortua da, baina egiatzko basamortua ere desiatzen nuen, eta hor agertu da. Ez da benetako basamortua, nik nahi dudalako da.

■ Amaia Ezpeldoi asmatu al du zure sentimendu horiek guztiak azaltzen?

Erraza izan da, Amaia Ezpeldoi bera detektibe ibiltaria baita, ez da sekula leku berean egoten, leku batetik bestera ibiltzen da. Aipatzen ditu nik Erriberako lagunekin bisitaturikoak, aipatutako gaiak, pertsonaia agertzen ditu jende askoren ahotik ikasi dituen gauzak.

■ Euskarari dagokionez, batua gehiago erabiltzen duzu honetan. Eta hizkuntza bera ere liburuko gai bihurtzen da, baita memoria, diozunez.

Idatzi ditudan liburu guztietan agertzen dira. Aldi berean, euskara galtzen ari den herrialde batekoak gara, eta, aldi berean, euskararen zaintzeko indarretan ari gara, kontzientzia eskizofreniko bat dugu buruetan, eta uste dut memoriak dituela biak lotzen, eta memoriak dituela laguntzen bi zati kontradiktorio horiek biltzen. Hortako memoria, salbazio bezala.

■ Amodioa ere konstante bat da zure liburuetan, eta azken honetan ere amodioa nahasten da istorioaren korapiloan.

Aipatzen ahal da inkesta dela hezurra, inkestaren inguruan gertatzen direnak haragia, eta maitasuna izanen da odola, gorputz hori biziartzen duena. Uste dut nahiz dudala agertarazi bizia nola den, eta bizian baditugu sentimenduak, amodiozkoak, edo gorrotozkoak, edo batere sentimendurik ez, eta hiru nobeletan pertsonaia nagusiak baditu amodio bereziak. Ez daki hautatzen homosexualitatearen eta

heterosexualitatearen artean. Azken nobelan osoki hautatua du, homosexualitateari buruz. Eta, beharbada, horregatik nobela honetan bizipoz handiagoa dago, hautuak eginak dituelako. Zerikusi du, beharbada, bere oinarrizko sozietatetik urrun izaita, horrek ere salbatzen du zenbaitetan.

■ Printzipioz bostekoa izan behar zuen Amaia Ezpeldoiaren bildumak, baina aipatu izan da agian hau azkena izanen dela... Izanen al du beste kasurik Euskal Herriko detektiberik ospetsuenak?

Bai, denborarekin izanen da bostekoa, edo gehiagokoa ere. Erran dut beldurra galtzen bazuen Amaia Ezpeldoi, urrunago joaiten ahalko zela, eta uste dut emeki-emeki lortuko duela. Menturaz, bost edo gehiagokoa izanen da. Niretzat, idazle bezala, oso baliagarria da halako pertsonaia baten ukaita. Denek bezala badituz gauzak erraiteko, eta denek bezala isildu ere behar dut

zenbaitetan, beraz, pertsonaia horren ukaita aldamenean niretzat baliagarria da bere bitartez hitz egiteko, nik eta neure inguruan direnek.

■ Orduan Amaia Ezpeldoi bazter utzi eta beste pertsonaia eta istorioak sortzeko gogorik ez duzu sentitzen?

Ez, gogoia sentitzen dut aspaldi honetan poesiako liburu bat publikatzeko, eta hortarako ez dut momentuan denborarik. Badut bilduma bat, idatzi nuen halako kantata ba, individuala eta kolektiboa, ama hil zitzaigunean. Baina behar dut oraindik moldatu poesia liburu hori, agian datorren urtean edo ondokoan argitaratzeko.

■ Orain... Amaia duzu oraindik buruan?

Orain, Mauleko ikastola berri hori dut buruan, hortan dugu gogoia, eta hori da gure literatura. Osoki poesia da egiten ari garena, eta uste dut Amaia Ezpeldoi laketa litzatekeela Sohütan ere, eta menturaz joanen da. x

s o s l a i a

Itxaro Borda, Amaia Ezpeldoi detektibearen sortzailea, 1959.an sortu zen Oragarren, Nafarroa Beherean. Nafarroa Beherean, hain zuzen, bere bigarren abentura bizi izan zuen Ezpeldoi, udaberrian kaleratu *Bizi nizano munduan* liburuan. Aurretik Zuberoan egona zen, *Bakean utzi arte* 1994. urtean idatzi bildumako lehen alean.

Ezpeldoi detektibearen abenturez gain, 1984.ean *Bizitza nola badoan* poesia liburua eman zuen argitara Maiatz argitaletxean, eta urte berean, Susan, *Basilika* nobela. *Krokodil bat daukat bihotzaren ordean*, *Udaran* betaurreko beltzekin, *Just love*, *Urtemuga lehorren kronika* eta *Bestaldean* ere bereak dira.

Orain, Mauleko Eperra ikastolaren arazoak ere baditu buruan, bera baita lehendakaria. Etxe berria erosi eta konpontzen ari dira.

P A N E LUCRÁNDO

ZALDI EROA

LIRIKAZ
HONATAGO

4Z.

GAUR:

MEN
DIA
K

John Berger

Mendiak egunero egunero leku berean daude. Askotan desagertzen dira. Batean gertuago daudela ematen du, batean, uruti. Baina beti leku berean daude. Bere emazte eta seme-alabak ura eta haizea dira. Beste planeta batean, baliteke mendien emazte eta seme-alabak helioa eta beroa izatea.

